Tresnak **finantza bazterkeriaren** eta **banketxeen praktiketako arrazakeriaren** aurka



zehar errefuxiatuekin

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia foru aldundia diputación foral

araba álava foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA DRAIN Es futuro

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

“Banketxe honetan ez naiz ongietorria, konturik gabe ez zaituzte kontuan hartzen”

Ginea Conakryko asilo eskatzaile Bienvenuk ez zuen inoiz uste izan, borrokatu beharreko eskubide guztien artetik, banketxe bateko oinarrizko kontu bat irekitzeko eskubide unibertsala borrokatu beharko zuenik.

Igaro beharreko muga eta hesi guztien artetik, nazioarteko babesaren eskatzaile horrek ez zuen inoiz uste izan banketxe bateko atea ere harresi bihurtuko zitzaionik. Beste bat, gainditu beharrekoa.

Guinea Conakryn bizitako izuari ihes egiteko bidaia luze hartan jasandako umiliazio guztien artetik, 22 urte baino ez dituen mutil horrek ez zuen inoiz usteko, Mendebalde desiratu honetan, oinarrizko kontu korronte bat (dirua atera, saldoa kontsultatu edo ikastaro bateko izen ematea ordaintzeko) irekitzeko eskubiderik ere ez zitzaiola onartuko.

2020ko urriaren 30ean hasi zen amesgaiztoa Vitoria-Gasteizko Kutxabanken banketxe batean kontu korronte bat irekitzea eskatu zuenean. Gaur dioskunez, «eskatu zizkidaten dokumentu guztiak aurkeztu nituen: asilo eskatzaile agiria, errolda agiria eta idazki bat adierazten zuena nik, legez, zerbitzu hori eskatzeko eskubidea nuela. Ondoren, kontua hainbat aldiz blokeatu zidaten eta, pertsona ezagun batekin bankura joaten ez banintzen, hainbat oztopa jartzen zizkidaten hura desblokeatzeko».

Gauzak horrela, supermerkatuan debitu txartelarekin erosketa ordaintzeak berak ere ezinegona sortzen zion, ez baitzekien txartelak funtzionatuko zuen edo erroreren bat emango ote zion. Oso ondo daki zer nolako lotsa sentitzen den blokeatuta dagoen txartelarekin ordaintzeko ahalegina egiten denean, behin baino gehiagotan gertatu baitzaio. Badaki zer nolako pisua duten ilarako beste bezeroen mespretxuzko begiradek, zera pentsatzen duten artean: «Hara, seguru ez daukala dirurik eta maula egin nahian dabilela»; «laguntza sozialen txartela izango da eta ez du dirurik izango, dena kiroleko oinetakoetan xahutu duelako»; «hona etorri eta edozertarako eskubidea dutela uste dute, baita banketxean kontu bat izatekoa ere».

Banku kontu bat izateko eskubide UNIBERTSALA

Izan ere, banku kontu bat izateko eskubidea unibertsala ez dago oso hedatua gure gizartean, legeak hala dioen arren. Hitzez hitz, azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege Dekretuak dio «oinarrizko kontu bat izateko eskubide unibertsala» eskaintzeko «betebeharra dutela kreditu entitate guztiek, eta inguruabar jakin batzuk baino ezin dutela eskubide hori ukatzea ahalbidetzen». Testuak, 2017ko azaroaren 25eko EAOn adierazten denez, gehitzen du «kreditu erakundeek (...) ordainketa kontuak eskaini beharko dizkiete (...) asilo eskatzaileei; bizileku baimenik eduki ez arren, arrazoi juridikoengatik edo egitatezko arrazoiengatik kanporatu ezin direnei».

Zentzua dauka pertsona horientzat banku kontu bat izatea oinarrizko eskubide izateak. Banku kontu bat giltza da oinarrizko eskubideak lortzeko; elikatzeko eta etxebizitza bat izateko; Udalaren dirulaguntzak kobratu ahal izateko, adibidez. Banku konturik gabe, nola kobratu oinarrizko beharrak asetzen direla bermatzen duten DBE, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, etab.? Gizarte Zerbitzuek badute aukerarik dirulaguntzen pertsona onuradunei dirua eskura emateko? «Bankuen kasuan ez dago B planik: konturik ez baduzu, ezin duzu ia-ia futbol talde batean ere izenik eman», diosku Bienvenuk. Ezin duzu indemnizaziorik kobratu, zure seme-alabek ezin dute ingeles akademia batean izenik eman ordainketak helbideratzen baditu... Alde horretatik, banku kontu bat izatea Atzerritarren Legean jasotzen den «oinarrizko prestazioak jasotzeko eskubidearen» barruan egongo litzateke.

Orduan, banku entitate batzuek zergatik jartzen dizkiete oztopoak pertsona atzerritarrei banku kontuak irekitzeko? Zergatik blokeatu zuen behin eta berriz Kutxabankek Bienvenuren banku kontua, nazioarteko babesa eskatu zuela frogatzen zuen agiria bazuen, zein izan zen arrazoia? Bienvenuk adierazi digu bera blokeoak zirela eta kexatzen zenean, «bankuan nirekin hitz egiten zuen pertsonak esaten zidan nik ez neukala kontu bat irekitzeko agiri ofizialik». Hori ez da egia, guztiz kontrakoa zen egoera. Asiloa eskatu izana egiaztatzen zuen agiria poliziak emana zen, baliozkoa eta ofiziala. Hala argudiatzen eta defenditzen du ERABEREANen talde juridikoak. Beraiek lagundu diote Bienvenuri tratu diskriminatzailegatik kexak eta erreklamazioak izapidetzen Espainiako Bankuaren aurrean, «mina, min handia» egiten baitu Bienvenuren ustez.

Izan ere, kontua hainbat aldiz blokeatu izanaren ondorioei buruz galdetuta, Bienvenuk honakoa adierazi du: «ezin nuen nire dirua atera, ezta saldoa kontsultatu ere, arazoa konpontzen zidaten arte. Txartelarekin zerbait

erostera joaten nintzen bakoitzean, ez nekien ordaintzerik izango ote nuen, bai bainekien bankuak edozein unetan blokea ziezadakeela».

Bienvenuk ez du oraindik zergatia ulertzen, eta badaki bere inguruko beste pertsona asilo eskatzaile askori ere eragiten diela. Paradoxikoa da, bere izena hori izaki, zergatik ez ote den bienvenu gizarte honetan. Izan ere, berak ez du beste gazteek jasotzen duten tratu bera jasotzea besterik nahi: futbol talde batean izena eman entrenatu ahal izateko, lanbide hezkuntzako ikastaroetan izena eman, dena delakoa eskotean ordaindu, eta banku kontu bat izan.

Bankuen diskriminazioaren aurkako tresnak

«Bienvenu» asko daude egungo gizartean, eta horri aurre egiteko giltza da jakitea nola aurre egin jasaten duten finantza bazterkeriari. Jarraian zerrendatu ditugu tresna horietako batzuk.

Tresna instituzionalak

Banku entitate batek ordainketa kontu oinarrizko bat zabaltzeari uko egiten dionerako, gehiegizko baldintzak ezartzen dituenerako edo blokeatzen duenerako, badago erreklamazio bat aurkezteko **administrazio prozedura** bat. Hasteko, idatzizko kexa bat edo erreklamazio orri bat aurkeztu behar da bazterkeriazko ekintza gertatu den entitatean, eta entitateak gure erreklamazioaren kopia zigilatua edo hura jaso izana egiaztatzen duen dokumentu bat bueltatu behar digu. 30 egun igarota, erantzunik ez badago edo erantzuna negatiboa bada, Espainiako Bankuaren aurrean egin daiteke erreklamazioa, postaz edo telematikoki erreklamazioari dagokion dokumentazioa aurkeztuta. Nahiz eta Espainiako Bankuaren ebazpena loteslea ez izan, erabilgarria da, entitateko zerbitzu juridikoei jakinarazten baitzaie eta, salaketa penalen kasuan, froga gisa balio baitezake.
https://clientebancario.bde.es/pcb/es/menu-horizontal/podemosayudarte/consultasreclama/comorealizarrecl/

Gizarte entitateen eta elkarteen tresnak

Ezer baino lehen, **informazioa bildu eta eskubideak ezagutu behar dira.** Arazo orokortua da hori; eta, oro har, gizarteko elkarte guztiek izaten dute

egoera horren eta salaketa estrategien berri. Interneten daude oinarrizko ordainketa kontuen Behatokiaren edo NO CLAMES, RECLAMAren web orriak:
https://cuentasdepagobasicas.es/
https://noclamesreclama.org/seccion/cuentas-de-pago-basicas/informacion-general

Estrategia asoziatiboen artean azpimarratzekoa da elkarteek eta gizarte mugimenduek eskaintzen duten laguntza (baita norbanakoek ere, herrikideek, gehienbat). Estrategia horien parte da kontuak irekitzea zer sukurtsaletan ahalbidetzen duten jakinaraztea, jendea masiboki joaten hasten denean sukurtsalek beraiek jartzen baitituzte oztopoak. Estrategia onenetako bat da pertsona eskubide hori ezagutzen duen eta erreklama dezakeen norbaitek lagunduta joatea, teknikariak, kasu. Laguntzeko inor izan ezean, interesgarria da pertsona eskatzaileak oinarrizko kontu bat irekitzeko zer baldintza bete behar dituen idatziz eramatea.
https://consumo.gob.es/sites/consumo.gob.es/files/Cuentas_bancarias_gratuitas.pdf

Horrez gain, laguntza eskatu dakioke Eraberean Tratu Berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Kontrako Sarea osatzen duen edozein entitateri. Sare hori Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, eta helburu dauka arraza-, etnia- edo nazio-jatorriak, sexu-orientazioak edo -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egitea..
https://www.euskadi.eus/web01-a1eraber/es/

Tresna juridikoak

Oinarrizko ordainketa kontu bat irekitzeari uko egitea justifikazio nahikoa izan liteke salaketa penal bat jartzeko, banku entitatearen bulego zehatz horretako ordezkariaren aurka (normalean bulegoko zuzendaria). Salaketa horrek erakundearen ordezkariak delitu bat egiteko aukera planteatuko luke, hain zuzen ere Zigor Kodearen 512. artikuluan aurreikusita dagoena. Izan ere, artikulu horren arabera, bankuak pertsona bati oinarrizko ordainketa kontu bat irekitzeko eskubidea ukatzen dio atzerritarra izateagatik, eta horrek oinarrizko berdintasun eskubidea urratzen du, zeina Konstituzioaren 14. artikuluak aitortzen baitu.

Halako salaketa batek egin dezakeen bidea jasandako bazterkeriari buruz mahairatu daitekeen frogaren araberakoa izango da. Froga horrek ikusarazi beharko du atzerriko pertsona horri nazioko pertsona

bati emango ez litzaiokeen moduko tratua eman zaiola. Argi dago hori frogatzea beti izango dela zaila, entitateak inoiz ez baitu onartuko salatzen den bazterkeriazko tratua.

Herri mobilizazioko tresnak

Erreklamazio sistematikoen kanpainetan gizarte zibilak, antolatu, eta sustatzen du eskubide baten urraketa jasan duten pertsona guztiek administrazioaren kontrol eta orientazio erakundeen aurrean kexak aurkeztea. Erakunde horiek izan daitezke Arartekoa, Herriaren Defendatzailea edo, hizpide dugun kasuan, Espainiako Bankua. 2017 eta 2023 artean Espainiako Bankuak oinarrizko ordainketa kontuei buruzko 150 erreklamazio jaso ditu. Hain erreklamazio gutxi jaso izanaren arrazoia izango da, seguruenik, pertsona batek ez duela gogorik izango, behin banku kontu bat irekitzea edo desblokeatzea lortzen duenean, bestelako prozeduretan denborarik galtzeko. Halako kanpainen bidez lortzen da instituzio horiek dauzkaten zifrak errealagoak izatea. Gauzak horrela, behartu egiten dituzte datu horiek aztertzera, eta baita eskubide urraketen aurrean gomendioak ematera eta kontrako jarrera hartzera ere.

Kalean ekintzak egiteak biztanleriari arazo horiek ikusarazten dizkio. Horren adibide da 2021ean Bizkaia SOS Arrazakeriak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaiak eginiko kanpaina, «Konturik gabe kontutan ez» izenekoa. Kanpaina horren bidez pertsona migratzaileek eta errefuxiatuek banku kontuak irekitzeko izaten dituzten zailtasunak salatu ziren. Horrez gain, instituzio publikoei eskatu zitzaien esku hartzeko, finantza entitateek legeak behartzen dituen zerbitzuak eskain zitzaten.
https://sosracismo.eu/sin-cuenta-no-cuentas/